ERABAKIAK
JAUZIAK

GEROA GORRIRA EKARRI

2004 • IRUÑEA

6.
biltzar nagusia

Emendakinak

Ponentzien alde bateri emendakinak
Enmiendas parciales a las ponencias

LAB

Zbkia
ZABALTZEN DOKUMENTAZIO ZENTROA
TXT 20178

Emendakinak
politiko sindikala
5

Onartutako
Emendakinak
politiko sindikala
105

Emendakinak
antolakuntza
133

Onartutako
Emendakinak
antolakuntza
189

Emendakinak
politiko sindikala

Eusko Alkartasuna
Alkartasun politikoa

Nazioarteko egoera

1. emendakina

Párrafos todos. Páginas todas.

Propuesta

Revisar los siguientes términos:

1. Empresariado: siempre que utilicemos el término 'empresariado' (al margen de que pudiera ser un término con falta de perspectiva de género que habría que revisar), utilicemos también el de 'administración pública'.
2. Administración: sustituir este término por 'poderes públicos', en las ocasiones que así se requiera.
3. Patronal: suprimir.

Motivos

1. Empresariado: se utiliza sólo el término 'empresariado' cuando planteamos líneas de acción sindical, valoraciones u otras cuestiones del mundo del capital privado, pero a mi entender subyace en la ponencia que, cuando hablamos de 'empresariado', también nos referimos a la 'administración pública' en su función de gestora de las personas trabajadoras dependientes de las distintas administraciones públicas.

En el caso de que mi interpretación no sea la adecuada, estamos obviando al "empresario" de cerca de 100.000 personas trabajadoras.

Además, la propia ponencia alude a la política neoliberal en la que se están cimentando las administraciones públicas (mercantilización de derechos básicos y servicios), por lo que resulta pedagógico visualizar los términos parejos, en este caso 'empresariado'='administración pública'

2. Hay varias utilizaciones de este término en la ponencia que, a mi entender, deberían ser sustituídas por 'poderes públicos', pues en estos casos está relacionado con diferentes competencias, tales como legislación, inspección, control, etc.

3. No veo diferencia con el término 'empresariado', por lo que planteo su supresión.

Paragrafo guztiak. Orrialde guztiak.

Proposamena

Hurrengo terminoak aztertzea:

1. Enpresaburuak: 'enpresaburu' hitza erabiltzen dugun guztietan, 'administrazio publikoa' ere erabili beharko genuke (gaztelerazko 'empresariado', genero ikuspegirik gabeko hitza izateagatik, beharbada aztertu beharreko hitza dela ahaztu barik).
2. Administrazioa: hainbat kasutan, hitz honen ordez 'botere publikoak' erabili beharko genuke.
3. Patronala: kendu.

Zergatiak

1. Enpresaburuak: 'enpresaburu' hitza bera bakarrik, kapital pribatuari dagozkion ekintza sindikaleko ildoak, balorazioak eta bestelako gaiak azaltzen direnean erabili ohi da. Hala ere, nik uste, ponentzian 'enpresaburuak' aipatzen ditugunean 'administrazio publikoari' ere egiten diogu erreferentzia, administrazio publiko ezberdinen menpe dauden langileen kudeatzailea baita.

Egin dudan interpretazio hau egokia ez balitz, 100.000 langileren "enpresaburua" alde batera utziko genuke.
Gainera, ponentzian bertan administrazio publikoak politika neoliberalean oinarritzen ari direla azaltzen da (funtsezko eskubideak eta zerbitzuak merkantilizatuz doazela, alegia), eta hortaz, pedagogikoa da bi termino hauek batera agertzea: 'enpresaburuak' = 'administrazio publikoak'.

2. Ponentzian hitz hau hainbat aldiz erabiltzen da eta, nik uste, zenbait kasutan 'botere publiko' erabili beharko litzateke bere ordez. Izan ere kasu hauetan konpetentzia ezberdinei dago lotuta, hala nola, legediari, ikuskaritzari, kontrolari, e.a.

3. 'Patronal' eta 'enpresaburuak' hitzen artean ez dut ezberdintasunik ikusten, beraz lehenbiziko hori ezaba dadila eskatzen dut.

Emendagilea: Batirtze Alkorta

2. emendakina
Párrafo 4. Página 7.

Propuesta
Añadir al final del párrafo, tras "la solución democrática a los conflictos", *"conviertiéndose de hecho en la cobertura jurídica internacional de dicha estrategia"*. Por lo que la frase quedaría de la siguiente forma:
"(4) [...] La ONU, mediatizada por el control económico militar de los EEUU no es capaz de superar la actual unipolaridad y ha quedado desactivada como instrumento para el desarrollo de los pueblos del planeta y la solución democrática a los conflictos, *conviertiéndose de hecho en la cobertura jurídica internacional de dicha estrategia.*"

4. paragrafoa. 7. orrialdea.

Proposamena
Paragrafo amaieran zera gehitu, ***"hortaz, estrategia horren nazioarteko laguntza juridikoa bilakatu da berez"***. Hortaz, esaldia honelaxe geratuko litzateke:
"(4) [...] NBE, AEBen kontrol ekonomiko eta militarren mende, ez da egungo mutur bakarra gainditzeko gai eta planetako herrien garapenako eta auzien konponbide demokratikorako baliabide modura indargabetuta geratu da. *hortaz, estrategia horren nazioarteko laguntza juridikoa bilakatu da berez."*

Emendagilea: Pitxu Koto Kanpillo

3. emendakina
Párrafo 6. Página 7.

Propuesta
Añadir lo siguiente al texto: "[...] y quitan a los estados *y a los pueblos/naciones sin estado actuales* la capacidad de regular su propio modelo de desarrollo"

Motivos

Si bien es cierto que desde un punto de vista teórico, tomando el concepto "estado" como estructura organizativa jerarquizada en el ámbito político, social, económico, cultural, administrativo y militar, lo reflejado en el texto original es cierto, lo es también el hecho de que una ponencia política tenga que ir encaminada a establecer las estrategias y marcos de actuación necesarios para transformar la realidad, y al mismo tiempo es innegable que la relación/interacción entre los "estados actuales" y los "pueblos/naciones sin estado actuales" interviene también activamente en la conformación y transformación de esa realidad.

Por tanto, consideramos necesario que es este párrafo de la ponencia política aparezca una referencia expresa a los pueblos/naciones sin estado actuales como Euskal Herria, siendo conscientes además de que el capital internacional interacciona en todos los ámbitos sea cual sea su forma de estructura organizativa.

6. paragrafoa. 7. orrialdea.

Proposamena

Testuari hurrengo hau gehitu: "[...] eta *gaur egungo* estatuei *eta estaturik gabeko herriei/nazioei* beren garapen eredu propioa araupetzeko ahalmena kentzen die".

Zergatia

Ikuspuntu teorikotik, "estatu" kontzeptua, esparru politiko, sozial, ekonomiko, kultural, adiministratibo eta militarrean, organizazio egitura hierarkizatu moduan hartuz gero, egia da jatorrizko testuak dakarrena. Baina, era berean, errealitatea aldarazteko behar diren estrategiak eta markoak ezartzera bideratu behar da ponentzia politikoa. Honekin batera, ezin da ukatu "gaurko estatuen" eta "estaturik gabeko gaurko herri/nazioen" arteko harremanak/eraginak errealitate hori aldatzen eta eratzen aktiboki laguntzen duela.

Beraz, beharrezkotzat jotzen dugu ponentziako paragrafo honetan Euskal Herria bezalako estaturik gabeko herri/nazioak aipatzea, kontuan hartuta, gainera, nazioarteko kapitalak esparru guztietan eragiten duela, organizazio-egitura edozein izanda ere.

Emendagileak: Juan Carlos Aretxaga / Miguel Bidaurreta

4. emendakina

7. paragrafoa. 8. orrialdea.

Proposamena

"balio" hitzaren ordez, "gaitz" ipini. Beraz, honelaxe geratuko litzateke:
"[...] kontsumismoa bezalako *gaitzak* zabalduz"

Párrafo 7. Página 8.

Propuesta

Sustituir la palabra "valores" por "*males*". Por lo tanto, quedaría de la siguiente forma:
"impulsando *males* como el individualismo [...]"

Emendagilea: Henrike Galarza

5. emendakina
8. paragrafoa. 8. orrialdea.

Proposamena
"bereziki aurrerakoiak" gehitu: "legedi ekonomiko edo soziolaboral *bereziki aurrerakoiak* kapitala metatu ahal izateko oztopoa baino ez dira"

Párrafo 8. Página 8.

Propuesta
Añadir "las legislaciones estatales *y especialmente las progresistas* en materia económica o sociolaboral no son más que un obstáculo"

Emendagilea: Henrike Galarza

6. emendakina
9. paragrafoa. 8. orrialdea.

Proposamena
"agortzeak" hitzaren ordez, *"lapurtzeak"* ipini.

Párrafo 9. Página 8.

Propuesta
El cambio afectaría sólo a la versión en euskara

Emendagilea: Henrike Galarza

7. emendakina
Párrafo 16. Página 9.

Propuesta
Anular la siguiente frase del artículo 16: *"y en una ocasión perdida para abordar la construcción europea desde el reconocimiento previo de los derechos de los pueblos europeos a participar de manera soberana y solidaria en este proceso".*

Motivos
No necesitamos proceso constituyente alguno de Europa para tener una "Europa de los pueblos", pues vale con que los pueblos puedan ser y estar en Europa, sin tutela alguna. ¿O es que estamos a favor de un super-estado europeo?, y que sería ¿para qué?, pero sobre todo ¿para quiénes?

16. paragrafoa. 9. orrialdea.

Proposamena

16. paragrafotik hurrengo esaldia kendu: *"Era berean, prozesu honi ekin orduko, Europako herriek burujabe eta elkartasunez parte hartzeko eskubidea badaukatela onartu beharra dago".*

Zergatia

Ez dugu Europa eraikitzeko inolako prozesurik behar "herrien Europa" eduki ahal izateko. Herriak, inongo tutoretzarik gabe, Europan izan eta egon ahal izatearekin nahikoa da. Ala Europar super-estatuaren aldekoak gara? zertarako litzateke hau? eta batez ere, norentzat litzateke?

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

8. emendakina

Párrafo 17. Página 9.

Propuesta

Sustituir "el derecho [...] a unas condiciones de vida dignas, a un trabajo de calidad" por *"el derecho [...] a unas condiciones de vida y de trabajo dignas"*

Motivos

Podemos hablar de "calidad" en términos de 'cualidad humana' en tanto que valores tales como la solidaridad, justicia, respeto, creatividad, capacidad de crítica u otros; podemos entender el concepto "trabajo de calidad" en tanto que humanización del trabajo, o podemos referirnos a la "calidad" en términos de mejora de un producto, un proceso o un servicio, pero no creemos que sean estos aspectos los que nos deban ocupar y preocupar en este momento. Sí, en cambio, aquellos términos en los que tengan repercusión en lo referente a la mejora de las condiciones de trabajo.

Ciertamente, el término/concepto "calidad" se está impulsando y extendiendo en múltiples ámbitos como garantía de competitividad y de desarrollo en beneficio de toda la sociedad, pero cuidado, no olvidemos que dentro de ese envoltorio brillante que se nos vende no hay sino miseria y explotación para la clase obrera y acumulación de plusvalía para las y los capitalistas. ¿En qué parámetros se está midiendo esa supuesta "calidad"? en producir más y a mayor ritmo; en optimizar los medios de producción reduciendo y precarizando aún más los puestos de trabajo; en un desarrollismo y capitalismo salvajes; en hacer a los trabajadores y trabajadoras partícipes/responsables en la viabilidad de las empresas, pero sin poder de decisión en cuanto al reparto del trabajo y de la riqueza acumulada.

Por eso, pensamos que un sindicato de clase no puede ni debe utilizar ese lenguaje (perjudica a la lucha ideológica) ni defender esos parámetros que se presentan como puramente técnicos pero que encierran una forma "dulce" de asimilación (favorece la alienación de los trabajadores y trabajadoras ya que perjudica su capacidad de respuesta) de la explotación capitalista.

Además, las condiciones de vida no se pueden desligar de las condiciones de trabajo porque son inherentes unas a otras, ya que los trabajadores y trabajadoras están obligados a vender su fuerza de trabajo para poder cubrir sus necesidades materiales. Por tanto, pensamos que es más adecuado utilizar para ambos aspectos el concepto de "dignidad" en vez de el de "calidad".

17. paragrafoa. 9. orrialdea.

Proposamena

"bizitza duinerako baldintzetarako, kalitatezko lanerako [...] eskubideak" esapidearen ordez, *"bizitza eta lan duin baldintzetarako [...] eskubideak"* ipini.

Zergatia

"Kalitate" kontzeptua 'ezaugarri humano' moduan uler dezakegu, elkartasun, justizia, begirune, sormen, kritika gaitasun edo bestelako balioei lotuz gero. "Kalitatezko lana" humanizatutako lantzat jo dezakegu. Edo kalitatetzat produktu, prozesu edo zerbitzuren bat hobetzea har dezakegu. Baina ez dugu uste momentu honetan horrek kezkatu edo arduratu behar gaituenik, lan baldintzak hobetzearekin zerikusia daukaten bestelako eginkizunek baizik.

Egia esan, "kalitate" terminoa/kontzeptua hainbat esparrutan zabalduz doa, jendarte osoari onura ekarriko dion lehiakortasun eta garapen bermea balitz bezala... baina, kontuz, ez dezagun ahaz saltzen diguten estalki distiratsu horren barruan zer dagoen: miseria eta esplotazioa langileriarentzat, eta gainbalioaren metaketa kapitalistentzat. Zein parametroz neurtzen ari da balizko "kalitate" hori?: gehiago eta arinago ekoizten da; ekoizpen bideak optimizatzen dira, lanpostuak gutxiagoturik eta prekarizatuagorik; sasi-garapen eta kapitalismo basatiak, langileak enpresen bideragarritasunaren partaide/errudun egiten dituzte, baina ez diete erabakitzen uzten lan eta aberastasunaren banaketan.

Horregatik uste dugu, klase sindikatua garen heinean, ezin dugula hizkera hori erabili (borroka ideologikoari kalte egiten dio) eta ezin ditugula parametro horiek defendatu. Izan ere, parametro tekniko hutsak bailiren aurkeztu, baina esplotazio kapitalistaren asimilazio modu "goxoa" ezkutatzen dute (langileen alienazioa erraztu eta euren erantzun ahalmena makaltzen du).

Gainera, bizi-baldintzak eta lan baldintzak ezin dira banatu, elkarri loturik daudelako: langileak euren lan indarra sartzera beharturik daude, premia materialak asetzearren. Beraz, bietarako, "kalitatea" baino, "duintasuna" erabiltzea egokiago dela uste dugu.

Emendagilea: Juan Carlos Aretxaga / Miguel Bidaurreta

9. emendakina

Párrafo 17. Página 9.

Propuesta

Anular todo este párrafo

Motivos

Explica cómo querríamos esta "Europa Unida" o super-estado europeo.

17. paragrafoa. 9. orrialdea.

Proposamena

Paragrafo hau osorik kendu

Zergatia
"Europa Batu" edo europar super-estatu hori nolakoa izatea nahi genukeen azaltzen du.

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

10. emendakina
Párrafo 18. Página 9.

Propuesta
Sustituir "El proyecto actual de constitución europea sigue negando" por *"cualquier proceso de constitución de un Superestado Europeo seguirá negando"*

Motivos
Partiendo de la base de la nula necesidad de la constitución de un superestado, sería mejor cambiar el entrecomillado.

18. paragrafoa. 9. orrialdea.

Proposamena
"Europako konstituzioaren oraingo proiektuak herri eta eskualde askori ordezkaritza eta eskubide politikoak erabiltzea ukatzen jarraitzen du" esaldian hurrengo hau aldatu: *"Europar estatu erraldoirako edozein konstituzio-proiektuk* herri eta eskualde askori ordezkaritza eta eskubide politikoak erabiltzea *ukatzen jarraituko du*".

Zergatia
Estatu erraldoirik eraikitzeko inolako premiarik ez dagoela onarturik, hobe litzateke esaldia aldatzea.

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

11. emendakina
Párrafo 19. Página 9.

Propuesta
Sustitución de "a este modelo de construcción europea" por *"a la autodenominada construcción europea"*.

Motivos
Sin el socialismo difícilmente se puede pensar siquiera en una eufemística Europa Unida, la que políticamente o administrativamente quizás tampoco entonces se necesite.

19. paragrafoa. 9. orrialdea.

Proposamena

"Europaren eraikuntza eredu horri" esapidearen ordez, *"bere buruaren izen hori eman dion Europaren eraikuntzari"*

Zergatia

Sozialismorik gabe, zaila da Europa Batua eufemistikoan pentsatzea ere, eta hau ere, orduan, beharbada ez da politiko edo administratiboki beharrezkoa izango.

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

12. emendakina

Párrafo 21. Página 10.

Propuesta

Sustitución de "una alternativa real al actual modelo de relaciones internacionales" por "*la* alternativa real al actual modelo de relaciones internacionales, *esto es, el socialismo*"

21. paragrafoa. 10. orrialdea.

Proposamena

21. paragrafoan ondokoa gehitu: "[...] nazioarteko harremanen gaurko ereduaren benetako alternatiba, *hau da, sozialismoa*, artikulatzeko behar diren ekimen guztiak abiarazten lagunduko du."

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

13. emendakina

Párrafo 22. Página 10.

Propuesta

Sustituir "la solidaridad y la cooperación internacional." por "el internacionalismo"

22. paragrafoa. 10 orrialdea.

Proposamena

"[...] nazioarteko elkartasunean eta lankidetzan oinarritutako dinamikak" esapidearen ordez, "*internazionalismoan* oinarritutako dinamikak" ipini.

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

14. emendakina

Párrafo 26. Página 10.

Propuesta

Sustitución de "en la UE" por "en Europa y el mundo".

Motivos

Una vez más, por no creer en la necesidad de la eufemística "Unión Europea"

26. paragrafoa. 10 orria.

Proposamena

"Europar Batasunean" esapidearen ordez, "Europan eta munduan" erabili.

Zergatia

Beste behin ere, "Europar Batasun" eufemistiko erabiltzeko premiarik ez dagoela sinesteagatik.

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

15. emendakina

1.4.1. atala. 10-11. orrialdeak.

Proposamena

Frantses estatuari dagokion zatian Frantses Errepublikaren barruan izaten den ezkerreko kutsuari aipamen bat eginen nioke.

Zergatia

Egia da jakobinismoa indartsua dela ere bai, baina begira zer nolako manifestazioak (ikasleenak, langileenak, funtzionarioenak) eta grebaldiak! *L'esprit républicain* deritzon hura oso gaiztoa izan da euskaldunentzat, guretzat, baina babes sozialerako gastu publikoa, seme-alebentzako laguntzak, emakumeentzako eskubide-bermeak... Atzera egiten ari da, baina zein mailetatik?

Apartado 1.4.1. Páginas 10-11.

Propuesta

En el apartado dedicado al Estado francés haría una mención al ambiente de izquierdas que suele haber en la República Francesa.

Motivos

Es cierto que el jacobinismo también tiene fuerza, pero hay que ver qué manifestaciones (estudiantes, trabajadoras y trabajadores, funcionariado) y qué huelgas. El llamado *L'esprit républicain* ha sido muy perjudicial para las y los euskaldunes, pero el gasto público dedicado a la protección social, las ayudas por hijas e hijos, las garantías en los derechos de las mujeres... Se está retrocediendo, pero ¿desde qué nivel?

Emendagilea: Henrike Galarza

16. emendakina

Paragraphe 27. Page 10.

Proposition

(27) L'Etat français entretient avec l'Allemagne un axe de collaboration factice dans le cadre de la construction européenne. La guerre d'Irak et position défendue par le gouvernement espagnol face à la politique économique et international de l'administration Nord Américaine ont ouvert une brèche dans les relations bilatérales des deux gouvernements qui soumettent EH. Bien sur, l'Etat français continue de collaborer avec l'Etat espagnol de façon répressive, tout en maintenant une stratégie propre à l'encontre de l'ensemble du mouvement abertzale, *et de l'identité d'EH dont le premier trait de singularité et victime est l'Euskara.*

Motifs

Parce que dernièrement les actions à l'encontre de l'Euskara en Nafarroa et contre l'édition et la presse euskaltzale s'est accrue. De plus l'ensemble des signes identitaires et singuliers basques sont sur l'ensemble du territoire, mais surtout en IEH et en Nafarroa, victimes de logiques centralisatrices et stato-nationalistes espagnoles et françaises.

27. paragrafoa. 10. orrialdea.

Proposamena

(27) Frantses estatuak Alemaniarekin lankidetza faktiko ardatza mantentzen du Europar eraikuntzaren ereduan. Irakeko gerrak eta gobernu espainarrak Amerikako Estatu Batuen administrazioaren polítika ekonomiko eta nazioartekoaren aurrean izan duen jarrerak haustura bat ireki du Euskal Herria menpean daukaten bi administrazioen arteko harremanetan. Hori bai, Frantses estatuak, mugimendu abertzaleareen kontrako estrategia propioa burutu arren, Espainiar estatuarekin batera ere iharduten du errepresioa, bai eta ere Euskal Herriko nortasunaren aurka eta azken honen adierazgarrienaren aurka, hau da euskara.

Zergatia

Nafarroan eta euskal editorialen eta euskal prentsaren aurka areagotu den errepresioarengatik. Gainera euskal nortasunari lotuak diren erakusgarri handienak eta gure lurraldeko isladatsuenak, batez ere IEH eta Nafarroan, frantses eta espainol zentraltasunaren eta estato-nazional logiken biktimak dira

Párrafo 27. Página 10.

Propuesta

Al final del punto "[...] estrategia propia contra el conjunto del movimiento abertzale" añadir: "y de la identidad de EH de la cual la primera sena de identidad y víctima es el euskara."

Motivos

Porque últimamente las acciones contra el Euskara en Nafarroa y contra las editoriales y prensa euskaltzale se ha intensificado. Además el conjunto de las senas de identidad y singularidades bascas del conjunto del territorio, pero sobre todo en IEH y en Nafarroa, son victimas de logicas centralizadoras y estato-nacionales españolas y francesas.

Emendagileak: Amaia Fontang / Lontzi Amado

17. emendakina

Paragraphe 28. Page 11.

Proposition

(28) Le processus de décentralisation initié dans les territoires insulaires de Nouvelle Calédonie (Kanaky) et se poursuivant en Corse crée une fenêtre d'opportunité politique aux peuples sans Etat sous emprise de l'Etat français.

Motifs

Il faut prendre en compte que le premier grand statut dérogatoire au centralisme français prend source avec le statut de la Kanaky. Cela dit les deux statuts obéissent à des logiques d'insularité ce qui est un point essentiel pour comprendre les pas de l'Etat français, sans quoi on tombe dans des caricatures et des non sens lorsque l'on essaye de transposer ces cas à EH. Attention! au modèle que l'on choisi.

28. paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena

"(28) Kaledonia Berrian eta Korsica irletan hasi den deszentralizazio prozesua, aukera politiko bat sortzen du Frantses Estatupean bizi diren estaturik gabeko herrientzat."

Zergatia

Jakin beharrekoa da frantses estatuaren lehen salbuespen adibidea Kaledonia Berrian duela abiapuntua. Baina kontutan hartu behar da logika hauek irlei dagokien logikei lotuak direla, guztiz garrantzitsua da hau ulertzea Frantses estatuak egin dituen aurrera pausuak ulertzeko, karikaturetan eta zentzugabekeriatan erortzeko arriskuan gara EHko errealitateari honelako prozesuak kalkatzerakoan. Kontuz aukeratzen ditugun ereduekin.

Párrafo 28. Página 11.

Propuesta

Sustituir el apartado (28) del punto1.4.1. por: "*El proceso de descentralización iniciado en los territorios insulares de Nueva Caledonia y seguido en Córcega crea una ventana de oportunidad política a los pueblos sin estados bajo dominación del Estado francés.* "

Motivos

Hay que tener en cuenta que el primer gran estatuto derogatorio al centralismo francés tiene como punto de partida el Estatuto de Kanaky. Pero los dos estatutos obedecen a lógicas de insularidad, cosa que es imprescindible para comprender los pasos que ha dado el Estado francés, si no podemos caer en caricaturas y en sinsentidos cuando intentamos traspasar estos casos a Euskal Herria. Cuidado con el modelo que escogemos!

Emendagilea: Amaia Fontang/ Lontzi Amado

18. emendakina

29. paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena

"(29) Nahiz eta ekonomikoki lotura natural bat izanik, ber enplegu gunean kokatzen girelakotz (BAMeko aglomerazioa eta Landesen hego aldea), batzuk errealitate hortaz baliatu nahi lukete Ipar Euskal Herri eskualdea esparru zabalago batean sartzeko. Baina aukera horrek ez dauka politika eta kultura ikuspegitik inolako oinarririk."

Zergatia

Gaur egun Iparraldeko jende askok lan egiten baitute Bokalen, Tarnosen, e.a.

Párrafo 29. Página 11.

Propuesta

"(29) Aunque económicamente haya una unión natural, ya que nos encontramos en el mismo núcleo de empleo (la aglomeración de BAM y el sur de Las Landas), algunos y algunas querrían servirse de esa realidad para incluir a Ipar Euskal Herria en un espacio más amplio. Pero esa opción no tiene base alguna desde el punto de vista político y cultural."

Motivos

Hoy en día mucha gente de Iparralde trabaja en Bokale y Tarnos.

Emendagilea: Pantxin Duhart / Jean Luc Hauciarts. Baiona.

19. emendakina

Paragraphe 30. Page 11.

Proposition

Il faudrait supprimer " Semblable à l'Etat des Autonomies qui succéda au modèle unitaire franquiste, cette" et commencer directement par *"La nouvelle décentralisation..."*

Motifs

Il ne faut pas tenter coûte que coûte de faire des parallélismes entre IEH et HEH en vue de démontrer que l'on est un même pays subissant les mêmes choses et ayant un histoire répressive identique. Elle est liée certes, mais ce qui fait que l'on veut construire EH c'est notre envie de construire un destin commun basé sur nôtre liens commun qu'est l'Euskara, il ne nous est pas indispensable d'inventer des parallélismes pour justifier notre projet, notre envie de destin commun et les liens qu'en tant que communauté linguistique nous entretenons suffissent à justifier notre action.

30 paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena

"frankismoko batasun ereduaren ostean etorri zen autonomia estatuaren antzera, ..." kendu.

Zergatia

Parekotasun merkerik ez da egin behar IEH eta HEHaren artean, herri bakarra garela erakusteko sufrimendu eta errepresio his-

toria berdinekin. Begi bistakoa da elkar lotuak direla, baina EH eraiki nahi dugunaren adierazle garbiena euskararen gainean finkatutako elkarren patua da, paralelismoak asmatzea ez da beharrezkoa gure proiektua justifikatzeko, elkarren Patu gogoa eta elkarri lotzen gaituen hizkuntza komunitate bera izateak nahikoak dira gure eginkizunak frogatzeko

Párrafo 30. Página 11.

Propuesta

En el apartado (30) del punto 1.4.1. quitar "similar al Estado de las autonomías que sucedió al modelo unitario franquista, tiene.." y empezar por *La nueva descentralización tiene como objetivos incorporar...*

Motivos

No hay que hacer paralelismos demasiados baratos entre IEH y HEH con el único objetivo de mostrar que somos un único país sufriendo las mismas cosas y teniendo una historia represiva idéntica. Claro que está ligada, pero lo que hace que queramos construir EH son nuestras ganas de un destino común basado en nuestro lazo común que es el euskara, no nos es imprescindible inventar paralelismos para justificar nuestro proyecto, nuestras ganas de destino común y los lazos que como comunidad lingüística que tenemos son suficientes para justificar nuestra acción.

Emendagilea: Amaia Fontang / Lontzi Amado

20. emendakina

Párrafo 30. Página 11.

Propuesta

Se propone eliminar del párrafo "similar al Estado de las autonomías que sucedió al modelo unitario franquista", con lo que quedaría:

"30) Esta nueva regionalización tiene como objetivos: incorporar de forma natural el concepto región a polos de desarrollo económico; responder a las demandas específicas de las realidades nacionales internas con un adaptado "neocentralismo", y evitar hablar del concepto de pueblo o nación, implantando denominaciones como "collectivité territoriale corse".

Motivos

Creo que son evidentes las diferencias entre los dos modelos y, aunque en la práctica presenten algunas similitudes, responden, en mi opinión, a enfoques diferentes.

30. paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena

"frankismoko batasun ereduaren ostean etorri zen autonomia estatuaren antzera" kendu.

Zergatia

Eredu bien arteko ezberdintasunak begibistakoak direla uste dut eta, praktikan antzekotasunik izan arren, nire iritziz, ikuspuntu ezberdinei erantzuten diete.

Emendagilea: Joseba Urquijo Bombín

21. emendakina

Párrafo 35. Página 11.

Propuesta

Tras "ideas excluyentes del nacionalismo español" añadir *"con un alto grado de implicación de la Iglesia católica (Conferencia Episcopal española), en la represión ideológica y mediática en contra de las reivindicaciones nacionales"*. Por lo que el párrafo quedaría de la siguiente manera:

"(35) El PP, a través del control de los medios de comunicación y los poderes fácticos económicos, está imponiendo el pensamiento único, que extiende en la sociedad española las viejas ideas excluyentes del nacionalismo español, *con un alto grado de implicación de la Iglesia católica (Conferencia Episcopal española), en la represión ideológica y mediática en contra de las reivindicaciones nacionales,* y ante la permisión y, en muchos casos, colaboración del propio PSOE. [...]"

35. paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena

"ideia baztertzaile zaharrak hedatuz doa" esapidearen ostean, *"gainera, nazio aldarrikapenen aurka, Eliza Katolikoak (Espainiako Gotzainen Konferentziak) ere egin du bat errepresio ideologiko eta mediatikoan".* Beraz paragrafoa honelaxe geratuko litzateke:

"(35) PP, komunikabideak eta botere faktiko ekonomikoak kontrolaturik, pentsamendu bakarra ezartzen ari da. Hau espainiar jendartean nazionalismo espainiarraren ideia baztertzaile zaharrak hedatuz doa, *gainera, nazio aldarrikapenen aurka, Eliza Katolikoak (Espainiako Gotzainen Konferentziak) ere egin du bat errepresio ideologiko eta mediatikoan*, eta PSOEk berak hori egiten laga eta, askotan, lagundu egiten dio. [...]"

Emendagilea: Jaime Souto Capelet

22. emendakina

36. paragrafoa. 12. orrialdea.

Proposamena

Aldatu hurrengo hau, gaztelerazko testuan:

"(36) El contexto internacional y la coincidencia de un ciclo de crecimiento económico, ha favorecido que, *salvo excepciones,* ese proceso de involución ideológica y de fascización no tenga un cuestionamiento social. A pesar de todas las medidas de "degeneración democrática" impulsadas por Aznar y la utilización política del poder legislativo y judicial, la sociedad española *ha sido manipulada con la complicidad de* una izquierda política y sindical desideologizada y a la defensiva".

Párrafo 36. Página 12.

Propuesta

Cambiar lo siguiente en la version en castellano:

"(36) El contexto internacional y la coincidencia de un ciclo de crecimiento económico, ha favorecido que, *salvo*

excepciones, ese proceso de involución ideológica y de fascización no tenga un cuestionamiento social. A pesar de todas las medidas de "degeneración democrática" impulsadas por Aznar y la utilización política del poder legislativo y judicial, la sociedad española *ha sido manipulada con la complicidad de* una izquierda política y sindical desideologizada y a la defensiva".

Emendagilea: Henrike Galarza

23. emendakina

40. paragrafoa. 12. orrialdea.

Proposamena

40. paragrafoa ezabatu eta horren ordez hauek jarri aipatzen diren lekuetan:

"33-bis) Kantoi eta herrialdeetako hauteskundeek estatu frantsesean, eskumaren porrot handia suposatu dute, bere politika ekonomiko eta sozialak zigortua izan dena, bereziki. Dena den, PSFk aurrera egitea, ez dago programa politiko eta ekonomiko alternatiboan oinarrituta (estatu eredua, europar konstituzioa, politika soziala...); baizik eta, elkarrekin erlazionatutako bi kontuetan: higadura ziklikoa eta politika antisozialen kostua.

40) 11-M-ko gertaeren eraginaren ondorioz izandako hauteskunde eta politika aldaketak, itxaropen berriak sortu ditu estatuan. Baina, asmo eta gogoak baino harantzago, ez daude euskal gatazkaren sustraiei eragingo dien programa politiko batean oinarrituta. Honez gain, Euskal Herriaren kontrako estrategian PPrekin parte hartu duen PSOEk, maniobra politikorako tarte eskasak ditu.

40-bis) Hori bai, argi dago azken hilabeteotan, hauteskunde kanpainan eta PSOEk irabazi ostean irekitako esparruaren lehenengo urratsetan eztabaida politikoa ezaugarritzen duen funtsezko faktorea zera dela: kolokan dagoen estatu eredua Euskal Herriaren borrokagatik eta Catalunya eta Galizan duen zeharkako eraginagatik. Euskal Herriaren borrokak, bigarren trantsizio politikorako beharra eragin du. Trantsizio honek, nazioen errekonozimendu eta eskubideen kontuei erantzun beharko lieke. Lehenengo trantsizioan, eskubide hauek, frankismoaren sektore faktikoek zein eredu autonomikoa onartu zuten erakunde politikoek neutralizatuta geratu ziren.

65-1) Bestetik adierazi behar da 11-M-ko gertaerek, egoera politikoa astindu eta gobernu aldaketa eragiteaz gain, indarkeria eta gatazkei eman beharreko konponbideen inguruko sentsibilizazio soziala sakondu dutela. Bistakoa da PSOEren kasuan, edo bereziki ERCrenean, jendarteak ontzat jotzen duela konponbideak eskaintzen dituena; bakerako eta konponbide politikorako nahiak, urratsak eta proposamenak agertzen dituena.

65-2) Euskal prozesuari dagokionez, PSOE gobernuan sartzeak, itxaropen logikoak sortzeaz gain, euskal politika berriro triangelatzen du, eta PNVren sektore batzuen tentazioak bizkortzen ditu; tentazioak estatura hurbiltzeko, estatutua birsortze hutsa eta aldi berean ezker abertzalea baliogabetzea helburu.

65-3) Aldaketak estatu espainiarrean, 1998an irekitako prozesuak baldintzatutako egoera politikoan (Lizarra-Garazi), bi hipotesitara garamatza ikuspegi politikoan: PNV-PSOEren birlerrokatze estrategikoa gatazkari konponbiderik eman gabe; edo birlerrokatze estrategikoa gatazkari aurretiko edo paraleloa litzatekeen konponbide negoziatu prozesuarekin; hau da, Euskal Herriaren errekonozimendu eta eskubideetan oinarritutako joko politiko demokratikoaren arauak ezartzean.

65-4) Ezker abertzaleak bere ekimen politikoarekin lehenengo hipotesia baldintzatu edo geldiarazi behar du. Honek,

gatazka mantenduko bailuke eta "alternatibak", estatutuaren osatze hutsera eramango gaitzake eta. Premiazko eta beharrezkoagoa da esparru politiko, sindikal eta soziala eratzea, aldaketa sozialerako eta subiranoak liratekeen oinarri sendoekin. Autodeterminaziorako eskubidean oinarritutako esparrua. Horixe izan behar baita funtsezko erreferentzia prozesua irekitzeko. Euskal independentismoak bere proiektu politiko eta soziala bide eta tresna demokratikoetatik bideratu behar du. Esparru honetan LAB eta ELAk zeresan handia dute.

65-5) Estatu frantseseko kantoi eta herrialde hauteskundeek agerian utzi dute boto abertzalearen igoera orokorra eta bereziki, atomizazio politikoa gainditu beharra; horrekin planteatzen baitiete eskaintza erakunde abertzaleek Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako herritarrei. LABek, bateratasunerako kontzientzia kolektiboa bultzatzeko lan egin behar du. Honek, bidea emango lioke mugimendu abertzaleari Euskal Herrian bere jarrera eta zilegitasun sozialean aurrera egiteko."

Párrafo 40. Página 12.

Propuesta

Suprimir el parrafo 40 por los siguientes y en los lugares que se menciona:

"33-bis) Las ultimas elecciones cantonales y regionales en el Estado francés han supuesto un sonoro fracaso de la derecha, castigada especialmente por su política económica y social. De todas formas, el avance del PSF no está sustentado en un programa político y económico alternativo (modelo de Estado, constitución europea, política social...), sino en dos cuestiones interrelacionadas: desgaste cíclico y costo de las políticas antisociales.

40) El cambio político-electoral, tras la influencia determinante de los hechos del 11-M en el resultado electoral abre unas expectativas nuevas en el Estado pero, mas allá de talantes y disposiciones genéricas, no están sustentadas en un programa político que dé respuesta a las raíces del conflicto vasco y, además, nos encontramos con un PSOE que habiendo participado con el PP en la estrategia contra Euskal Herria, dispone de escasos márgenes de maniobra política

40-bis) Eso sí, es evidente que en los últimos meses, en la campaña electoral y en los primeros compases del escenario abierto por el triunfo del PSOE, el factor determinante que caracteriza el debate político es un modelo de estado puesto en cuestionamiento por la lucha de Euskal Herria y su impacto indirecto en Catalunya y Galiza. La lucha de Euskal Herria ha provocado la necesidad de una segunda transición política que responda a las cuestiones centrales en reconocimiento y derechos de las naciones que en la primera transición quedaron neutralizados tanto por los sectores fácticos del franquismo como por las organizaciones políticas que asumieron el modelo autonómico.

65-1) Por otra parte hay que constatar que los hechos del 11-M además de sacudir el conjunto del escenario político y provocar un cambio de gobierno, también ha profundizado el nivel de sensibilización social en torno a la violencia y necesidad de solución a los conflictos. Es evidente que en el caso del PSOE o, especialmente, en el de ERC, la sociedad considera de forma positiva a quien ofrece soluciones, a quien aporte voluntades, pasos y propuestas para un escenario de paz, alternativo y de soluciones políticas.

65-2) En relación al proceso vasco, la entrada del PSOE en el gobierno, además de alimentar lógicas expectativas, vuelve a triangular la política vasca acelerando las tentaciones de sectores del PNV por abordar un acercamiento al Estado en clave de mera regeneración estatutaria paralelamente a la neutralización de la izquierda abertzale.

65-3) El cambio en el Estado español, dentro de un escenario político condicionado por el proceso abierto en 1998 (Lizarra-Garazi), nos lleva a dos hipótesis en perspectiva política: realineación estratégica PNV-PSOE sin solución al conflicto o realineación estratégica con previo o paralelo proceso de solución negociada al conflicto; es decir, de establecimiento de reglas de juego político democrático basadas en el reconocimiento de Euskal Herria y sus derechos.

65-4) La izquierda abertzale tiene con su iniciativa política que condicionar o cerrar el paso a una primera hipótesis que nos llevaría a un mantenimiento del conflicto con un mero relleno estatutario como "alternativa". Adquiere más urgen-

cia y necesidad la vertebración de un espacio político, sindical y social con sólidas bases soberanistas y de cambio social. Un espacio nucleado en el derecho de autodeterminación como referencia insoslayable para la apertura de un proceso donde el independentismo vasco encauce su proyecto político y social por vías e instrumentos democráticos. Un espacio sobre el que LAB y ELA tienen mucho que aportar.

65-5) Las elecciones cantonales y regionales francesas han constatado el aumento global del voto abertzale y, especialmente, la necesidad de superar la atomización política con que las organizaciones abertzales plantean su oferta a la ciudadanía de Lapurdi, Baxenabarre y Zuberoa. LAB debe trabajar para impulsar una conciencia colectiva de convergencia que permita al movimiento abertzale en Ipar Euskal Herria avanzar en sus posiciones y legitimidad social."

Emendagilea: Nazio Komitea

24. emendakina

Apartado 1.4.2. y párrafo 44 (nuevo). Páginas 11-13.

Propuesta

1º Adecuar los tiempos verbales en el apartado 1.4.2. y otros (por ejemplo, "(35) El PP *está imponiendo* el pensamiento único").

2º Introducir un nuevo punto de análisis, al final del apartado 1.4.2.:

"(44-nuevo) Hemos conocido al PSOE en el papel de hacer asumible la transición del franquismo y, tras ella, la reconversió industrial, el diseño estatal, etc. Hoy debemos mantenernos alerta ante la más que posible utilización de la ficción del "PSOE progresista" después del 14-M, para realizar una nueva reconversión-reconstrucción política del estado, preparando el "retorno de la derecha" y el bipartidismo constitucional español"

Motivos

Después del 14-M, se necesita releer la ponencia por las referencias a la situación del Estado español y Euskal Herria especialmente, ya que uno de los elementos multirreferenciados, PP-PSOE, no está como estaba.

1.4.2. atala eta 44. paragrafoa (berria). 11-13. orrialdeak.

Proposamena

1. Aditzen denbora egokitu, 1.4.2. atalean eta beste batzuetan (adibidez, "(35) PP[...] pentsamendu bakarra *ezartzen ari da*")

2. 1.4.2 atalaren amaieran beste paragrafo bat gehitu:

"(40-berria) Ezagutu dugu PSOEk frankismoren trantsizioa onargarri egin zuela eta, honen ostean, industria birmoldaketa, estatu diseinua, eta abar. Gaur, martxoaren 14az geroztik, adi egon behar gara, zeren eta, seguruenik, "PSOE aurrerakoiaren" fikzioa erabiliko baitute estatuaren birmoldaketa-berreraiketa politikoa egiteko berriro ere, eta "eskuinaren itzulera" eta espainiako alderdi-bitaun konstituzionala prestatzeko."

Zergatia

Martxoaren 14az geroztik, ponentzia berriro irakurri beharra dago, Espainiar estatua eta Euskal Herriaren arteko egoerari egiten zaizkion erreferentziak batik-bat, askotan aipatzen den elementuetako bat, PP-PSOE bikotea, alegia, ez baitago gaur egun lehen zegoen moduan.

Emendagilea: Pitxu Koto Kanpillo

LAB eta Euskal Herriko prozesu politikoa

25. emendakina

2.1. y 2.2. atalak. 15-21. orrialdeak.

Propuesta

Bi atalak kendu.

Motivos

Nire ustetan, nahiz eta 68. puntuan sindikatuaren barruko aniztasun ideolojikoa aldarrikatzen den, testuko kapitulu hauetan esaten dena horren kontra doa. Kapitulu horietan egiten den errealitate politikoaren interpretazio eta irakurketa oso kolorebakarrekoa da, gehiegi lerratua alde batera, jarrera politiko jakin baten adierazpide bihurtuz. Anaitasunako adierazpena, Legez kanpo geratu diren plataformak, AuB, Nazio Eztabaidagunea eta Bergarako proposamena goraipatuak diren bitartean, ezker eta abertzaletasunaren parametroetatik politika egiteko beste zenbait ekimen gutxietsi egiten dira.

Aipatu kapitulu horietan dena manikeismo hutsa da. Bertan maximalismo gehiegi jasotzen dira. Batzuk onak eta garbiak dira, eta gainontzeko guztiak, inolako ñabardura eta salbuespenik gabe, arbuiagarriak dira; batzuek dena eman dute Euskal Herriaren alde, besteek beren interes alderdikoiak bultzatuta; batzuek gatazkaren konponbidea bilatzearren borrokatzen dute, beste batzuk, aldiz, pozoitu egiten dute.

Beste alde batetik, edozein ikuspegitik interesgarria bada ere Euskal Herriko prozesu politikoari buruzko eztabaida bat sortzea, nire ustez horrek ez luke, nahitaez, ponentziaren testuaren onarpenarekin amaitu behar, gorago azaldu berriko gai nahasi eta eztabaidagarrietan zehatzegi jokatzen baitu eta horrek ezker abertzalearen mugimenduko sektore zabal bati ateak itxiko bailizkioke; hori izan zen, gainera, azken batzarraren ondoren beste batzar sektorialik egin ez izanaren arrazoi nagusia, Udal eta Foru Administrazioarena, esate baterako, zeinaren partaide naizen.

Bestaldetik, zenbait puntu jakin eta ikuspegi politiko eta elektorali buruz horren interpretazio zehatza adostea gehiago dagokie erakunde politikoei, non norberak hautatutako lekua aurkituko duen, mugimendu sindikal bati baino.

Beraz, gustatuko litzaidake sindikatuaren jarduera politikoaren lerroa zabalagoa izatea, horren soslai nabarmenik gabe, LABeko militantea izateagatik opzio politiko jakin baten alde agertu behar izan gabe. Arrazoi berberagatik ez dut erakunde politiko bateko kide izateagatik sindikatu edo talde jakin batera afiliatzera behartuta egon nahi, ez eta erlijio sinesmen jakin bat izatera. Sindikatu zabalago bat nahiko nuke, integratzaileagoa, azken finean, ez nuke nire opzio politikoak beste sentsibilitate bat duten ezker abertzaleko beste lagunekin militantzia sindikala konpartitzeko oztopo gaindiezinak sortzerik nahi; sindikatu bat non elkarrekin bizi daitezen borroka armatuak gaur egun zentzurik ez duela pentsatzen dutenak eta "Eremu abertzale eta aurrerakoian indarrak bildu eta aktibatzeko prozesua sustatzeko xedean, ETAren ekimen politikoak erabakigarriak dira" dutenak; sindikatu bateratzaile bat, AuB eta plataformetaz gain Aralar-Zutik eta beste batzuk bilduko lituzkeena, indarrak zatitu baino batu egingo lituzkeen sindikatua.

Dena den, onartzen dut, ezin liteke beste modura izan, sindikatuaren legezkotasuna, testu hau ala beste bat onesteko, horrela erabakitzen badute bere afiliatuek, lerro mehe zein lodiaz egina, defendatzen diren jarrera politiko-

ak zehaztuta -ponentziak egiten duen bezala- ala zehaztu gabe, kidetasun politikoak era zentzubakarrean markatuta ala era anitzean.

Guzti horretaz gain, nire aburuz, Euskal Herria bezalako herri iskanbilatsu honetan, 2003. urte bukaeran egindako testu batek, zeinari geroago egindako orraztu txiki batzuk erantsi zaizkion, bere indar guztia galdu egin duela martxoak 11 eta 14ean bitartean bizitako hiru egunen ostean, eta ¿zer nolako zentzua izango du kapitulu hauetan jasotakoak bi hilabete barru, ETAren su-etena inoiz baino hurbilago ikusten denean, elkarrizketaz baino hitz egiten den egunotan, Ibarretxeren egitasmoaz eztabaidatzen den egunotan, Europako hauteskundeetara Bergarako proposamena bere bi eranskinekin oinarritzat hartuz zerrenda bateratu batean joateko Aralarrek egindako deia aipatu gabe, duela gutxi pentsaezina zen autodeterminazioaren aldeko birbateratzea ekar lezakeena...? Hau da, kapitulu hauetako testua zaharkituta gera baldin baitateke eta bere gaurkotasun guztia galdu badezake, merezi ote du Euskal Herria bezalako herri dinamiko batean onartua izango den baino sei hilabete lehenago gertatutako zenbait gai zehatzen aipamena jasotzen duen testuaren irakurketa politikoa egitea?

Baina, hala eta guztiz ere, marka jakin batekoa izatea erabakitzen badugu, izena ez ezik abizena izango duen sindikatu bat nahi badugu, izan gaitezen koherenteak, jakinerazi diezaiogun afiliatu orori: markatu dezagun lerro fin ONGIA eta GAIZKIAren artean, izan gaitezen argiak: era jakin honetan pentsatzen dutenak soilik onartuko ditugu sindikatuan, ez dugu gure artean mitxelinik nahi, sindikatu honetako partaide izan nahi badute irents dezatela gehiengoak pentsatzen duguna, baina, arren, ez diezaiegun geroago esan, ideolojikoki sindikatu anitza garenik.

Eta, aitzitik, nik proposatzen dudan legez, erabakiko bagenu sindikatua anitza izatea, zabala, integratzailea, ezker eta abertzale inguruko lagunak bilduko dituena, ezabatu ditzagun kapitulu hauek.

Egin diezaiogun gure buruari mesede hau. Elkar ulertzera kondenatuta gaude, berandu baino lehen bilduko gara ezkerreko abertzale guztiak; ez ditzagun ireki gero nekez itxiko diren urradurarik; ez ditzagun eraitsi gero zeharkatu behar izango ditugun zubirik. Izan gaitezen eskuzabalak.

Capítulos 2.1. y 2.2. Páginas 15.-21.

Propuesta

Suprimir ambos apartados

Motivos

Creo a mi entender que si bien en el punto 68 se proclama la existencia de pluralidad ideológica dentro del sindicato, estos capítulos del texto lo contradicen. Capítulos en los que se vierte una interpretación y una lectura de la realidad política del país muy monocolor, excesivamente partidista, haciendo de correa de trasmisión de una línea de actuar política muy concreta. Se dicen laudorios de la declaración del Anaitasuna, alabanzas de las plataformas ilegalizadas, de AuB, del Nazio Eztabaidagunea, de la propuesta de Bergara, obviando y ninguneando otros intentos de hacer política bajo otros parámetros de izquierda y abertzale

Todo es maniqueismo en dichos capítulos. Demasiados maximalismos se dicen en ellos. Unos son buenos y puros y todos los demás, sin matices ni excepciones, son rechazables, unos lo han dado todo por Euskal Herria los otros lo hacen por intereses partidistas, unos luchan por la resolución del conflicto otros lo enconan,...

Por otro lado, si bien desde todo punto de vista es interesante que se abra un debate sobre el proceso político en Euskal Herria creo que ello no debería necesariamente de concluirse en la aprobación de un texto como el de la ponencia que concretiza tanto y en temas tan complejos y polémicos como los arriba expuestos, pues ello no hace sino cerrar puertas a sectores importantes del movimiento de izquierdas abertzale. Amén que éste creo que fue la principal razón para que, tras el último congreso, no se llegaría a realizar algún que otro congreso sectorial -por ejemplo el de Udal eta Foru Administrazioa al que pertenezco-.

Por otra parte, acordar una interpretación tan concreta sobre determinados puntos y aspectos políticos y electorales corresponde más a organizaciones políticas donde cada uno encontraremos el lugar elegido por cada cual, que a un movimiento sindical.

(296) Gaur egungo prebentzio legedia enpresaburuek eta administrazioek bete dezatela eskatze hutsak, sindikatu eta erakunde politiko batzuek egiten duten moduan, zera esan nahi du, ez dela ulertzen legedi hori Frantzian, Italian, Erresuma Batuan, Europako iparraldean 60-70 hamarkadetan langileriak burutu zituen mobilizazio handien lorpena dela. gure erronka da langileen eta ordezkarien (baldin badaude) eskubide eta konpetentziak gauzatzeko defentsa-estrategia sendoa bideratzea. Estatuak eskubide horiek bermatuko dituela sinestea bere klase-izaera zein den ez jakitea da. Arazoa ez da konponduko lan ikuskari gehiagorekin, esan izan digutenez. Lan osasuna, ikuspuntu sindikaletik, mobilizazio eta borroka arazoa da.

(297) Langilerik hil den istripuen aurkako mobilizazioak, lanuzteak enpresetan, delegatuen kontzentrazioak herrian edo eskualdean bertan..., honek guztiak lan osasunaren arazoa komunikabideetara eramatea lortu du. Honen ondorioetako bat da jendarteak kontzientzia hartu izana. Hala ere, gure protestek ekarri duten eta hedabideek bultzatu duten politikoen kezkak ondorio maltzurrak sorrarazi ditu. Izan ere, patronalak, Espainiako, EAEko eta Nafarroako gobernuek eta estatu mailako sindikatu nagusiek itun politikoa egin dute; eta honek azaltzen du azken urte eta erdian istripuak, itxuraz, gutxitu izana. Istripu erregistroa gutxitzeko iruzur planifikatu eta baimendu hau istripuak erregistratzeko eta jakinarazteko bide berriek erraztu dute, datuen kontrola Gizarte Segurantzaren esku uzten baititu.

(298) Egun egiten diren mobilizazioak ez dira nahikoak. Heriotzik duertatuz gero, protsta egiten da, baina hori da gauza bakarra. Enpresaburuek ondo jasaten duten errialean gelditurik gaude, ez garelako gai arriskuen kontra mobilizatzeko, arrisku hauek gertatzen diren lekuan bertan, enpresetan, alegia. Administrazioak eta hauetako kudeatzaileak ondo eroso daude, euren politika eta programen aurka egiten dugun oposizioa ahula delako. Programak egiteko baliabide publiko garrantzitsuak lortu ditugu administrazioetatik, baina baliabide hauek gehienbat instituzioen propaganda egiteko ematen dira eta ez lan baldintzak hobetzeko.

(299 berria) Lan osasuna zaintzeko gaur egungo sistema zerean oinarritzen da, patronalaren menpekoak diren zerbitzuetan, patronalarenak diren mutualitateen esku dagoen arreta sanitarioan, eta Gizarte Segurentzaren indemnizazio eta elbarritasun prestazioetan, Gizarte Segurantzaren prestazio-politikak gero eta murriztatzaileagoak izanda. Ahulezi sozialeko sasoian, langileen osasun eskubideak prebentzio zerbitzu pribatuen esku uztea ergelkeria da, zerbitzu hauek enpresaburuek kontratatzen batituzte eta euren helburu bakarra bezeroak lortzea baita. Lanbideko gertakizunei lotutako osasun arloan, langileen eskubide falta errealitatea da, baina errealitate honi bizarra ematea jokabide konplizeak baino ezin du azaldu. Azkenik, gaixo kronikoak apurka-apurka lan markatutik botatzen ari dira eta honen aurrean sindikatu eta politika mailan ezer ez egiteak elkartasunik ez adierazteaz gain, ez da batere bidezkoa, are gehiago, pertsona hauen osasuna maiz lan baldintzen erruz okertu delako.

(300 berria) Sindikatuak lan arriskuen kontrako mobilizazio eta borroka estrategiari ekingo dio enpresetan eta jendartean; honetarako, langile guztiei zuzendutako eta sektore eta lurraldekako estrategian oinarrituko da eta beti ere saiatuko da ekintza sindikal bateratuena gauzatzen.

301 berria) Halaber, gaur egun indarrean dagoen lan osasuna zaintzeko sistema ordezkatzeari ekingo dio. Euskal osasun sistema hobetzeko proposamenarekin bat (ikusi 145. paragrafoa), lan osasuna osaun sistema publiko barruan sartzearen zein prebentzio zerbitzuen sistema pribatua desagertzearen aldekoak gara. Era berean, mutualitateen asistentzia sistema desagertu eta gizarte segurantzako sistema propioa eraikitzearen alde egiten dugu. Sistema honek lanaren ondorioz gaixorik eta elbarri daudenen eskubide sozialak areagotu beharko ditu. Sistema publiko, unibertsala eta bidezkoa izango da, parte hartzea bermatuko du, atentzio osoa emango du, prebentzioan oinarrituko da eta lan baldintzek osasunean zelako ondoroak dauzkaten aztertzea benetan bideratu eta bultzatuko du.

(302 berria) Sindikatuak, 5. biltzar Nagusia egin zenetik gaur arte, ergonomia, arrisku kimiko, jazarpen moral, emakumeen, lan antolakuntzaren inguruko kanpainak eta jardunaldiak burutu izan ditu. Honen bidez finkatu duen lan moduak emaitza neurgarriak izan ditu, jardunaldi eta kanpaina hauetan parte hartu duten enpresetako lan baldintzak eta eskubideen erabilera neurtu ahal izan da, alegia. 7.000 eta 8.000 langile inguruk hartu dute parte gure kanpainetan. jazarpen morala testu zientifikoetako kontua izatetik ekintza sindikalera pasatu da. LABeko ehunaka ordezkarik eztabaidatu dituzte lan osasunaren inguruko ekintza sindikalerako irizpideak. Lan honek guztiak Biltzarraren ostean iraungo du.

Zergatiak

294. eta 295. paragrafoetako kontzeptuak eta 33. orrialdeko 177. paragrafokoak berberak dira.

Gaur egungo egoeraren sorburua azaltzeko, garrantzi ezberdina daukaten kontzeptuak nahasten ditu testuaren diskurtsoak. Delegatuak formatzeko sindikatuaren zeregina eta enpresaburuen ardura ezin dira parekatu kalteak azaldu orduko.

Lan osasuna zaintzeko sistemari dagokionez, testuak ez du argi uzten mutualitateak desagertzearen alde egiten dugula. Beste sindikatu batzuek mutualitateak babes sozialeko sistema publikoaren parte direla diote. Eta, honela, erakunde hauek legitimatu egiten dira. Honelako testuek sindikatuak kanpainia tamalgarrietan parte hartzeko bidea ematen dute: mutualitateei buruzko azkena, adibidez, non, inplizituki, mutualitateek lan osasunean daukaten zeregina barneratzen zen. Hau onartezina da. Defendatzen dugun osasun sistemaren inguruan hitz egiten dugunean esan bezala, beharrezkoa da erakunde hauek desagertzea eta euren baliabideak osasun sistema publikoan eta gizarte segurantza propioan sartzea.

Emendagilea: Iñaki Moreno Sueskun

104. emendakina

296. paragrafoa. 50. orrialdea.

Proposamena

296. paragrafoari hurrengo hau gehitu:

"LABek, beraz, interpelazio, salaketa eta mobilizazioetan urratsak egiten jarraitu behar du. Horretarako, lan osasunaren alor ezberdinen inguruan dinamika konfederala jarriko du martxan, denboraren poderioz urratsak egin daitezen."

Zergatia

Lan osasunean, gure afiliazioa eta jendartea oro har ardatz ezberdinetan kokatu behar dugu eta, horretarako eta egin behar diren jauzi ezberdinak egiteko, mobilizazio dinamika konfederal indartsuaren beharra daukagu.

Párrafo 296. Página 50.

Propuesta

Añadir lo siguiente al párrafo 296:

"Por lo tanto, LAB tiene que seguir dando pasos en interpelación, denuncia y movilizaciones. Para ello, pondrá en marcha una dinámica confederal en torno a los distintos espacios de salud laboral, para dar pasos con el paso del tiempo"

Motivos

Tenemos que colocar a nuestra afiliación y a la sociedad en general en distintas clavijas y, para ello y para dar los distintos saltos que hay que dar, necesitamos una dinámica confederal fuerte.

Emendagilea: Gorka Berasategi Lezana

105. emendakina

302. paragrafoa. 51. orrialdea.

Proposamena

302. paragrafoari ondorengoa gehitu:

"Honez gain, entzumen-urrituak diren langileei komunikazioa eta informazioa erraztu beharra dago zeinu lengoaiaren interpreten bidez, nahiz beste medio tekniko batzuen bidez, lan munduan aktiboki parte har dezaten. Zentzu honetan, entzumen-urrituak diren langileen, elkarteen, eta entzumen-urrituak diren umeen gurasoen urteetako eskakizunen aurrean, instituzioek jarrera pasiboa hartu dute, Lakuako eta Nafarroako Gobernuak barne, baina LABen zeinu lengoaiaren ofizialtasuna aitortzeko garaia heldu dela diogu, edozein hizkuntza mintzatu bezain beharrezkoa baita eta hauek bezain bizirik baitago"

Párrafo 302. Página 51.

Propuesta

Añadir lo siguiente al párrafo 302:

"En concreto, debe dotarse al personal discapacitado auditivo de intérpretes de lengua de signos y otros medios técnicos que faciliten la participación activa en el ámbito laboral. En este sentido, tras años de pelea de los trabajadores y trabajadoras, colectivos de personas sordas y asociaciones de madres y padres de niñas y niños sordos, y ante la pasividad de las instituciones, como el Gobierno de Lakua y el Gobierno de Navarra, desde LAB reivindicamos que es hora de que se reconozca oficialmente la lengua de signos como medio de comunicación tan necesario y vivo como cualquier otra lengua hablada"

Emendagilea: Jonkar Gómez

106. emendakina

302. paragrafoa. 51. orrialdea.

Propuesta

Modificación del texto y hacer uno sólo como resolución congresual de acción sindical. Se propone el siguiente párrafo:

"(302) Los delegados y delegadas de personal y sindicales, así como las personas integrantes de los Comités de Empresa pertenecientes a LAB, tanto en las empresas privadas como en las del sector público, impulsarán la creación de puestos de trabajo para las personas discapacitadas, ya sean éstas físicas, psíquicas o sensoriales, bien mediante la negociación del convenio colectivo o por la ampliación de la plantilla"

Motivos

Siendo cierto que las personas discapacitadas tenemos serias dificultades para acceder al mundo laboral y que las empresas públicas y privadas no cumplen con el porcentaje exigido por ley, desde LAB debemos ser exigentes y contundentes en reivindicar que se creen puestos de trabajo para las personas discapacitadas.

No es cierto que los Centros Especiales de Empleo sean el tránsito hacia una incorporación al mundo laboral, al contrario, son lugares de explotación, mano de obra barata y de creación de guetos.

302. paragrafoa. 51. orrialdea

Proposamena

Testua aldatu eta ekintza sindikaleko ebazpen moduan testu bakarra egin. Hurrengo paragrafoa proposatzen da:

"(302) Langileen delegatuek, delegatu sindikalek eta LABekoak diren enpresa komiteetako kideek, enpresa pribatuetan zein publikoetan, ezgaituentzako lanpostuak sortzearen alde egingo dute, berdin gorputz, adimen edo sentimen urrituak izan pertsona hauek. Honetarako bideak hitzarmen kolektiboa zein plantila zabaltzea izango dira."

Zergatiak

Egia da ezgaituok zailtasun handiak dauzkagula lan merkatura sartu ahal izateko eta enpresa publiko zein pribatuek ez dutela legeak ezartzen duen batez bestekoa betetzen. Hori dela eta, LABen zorrotz eta erabatekoak izan behar gara ezgaituentzako lanpostuak sortzeko aldarrikapenean.

Ez da egia Enplegu Zentro Bereziak lan mundura sartzeko bidea direnik, aitzitik, esplotazio, esku lan merke eta ghettoak sortzeko lekuak dira.

Emendagilea: Koldo Mikel Munilla Saso

107. emendakina

Párrafos 304-308. Página 50-51.

Propuesta

Sustituir por los siguientes párrafos:

"(304) La inmigración es y ha sido un mecanismo de supervivencia de millones de personas a través de la historia. Por lo tanto, ni es nuevo en Euskal Herria ni en el resto del Planeta. En la actualidad las políticas neoliberales globalizadoras de saqueo y rapiña a los países del sur, unido al estrangulamiento y sometimiento por parte del BM, OMC, FMI, producen un éxodo masivo de mujeres y hombres de todas las edades en busca de una mejor vida, tanto en el ámbito económico, educativo y social. Es una consecuencia genocida del modelo de desarrollo económico, social y cultural del imperialismo. Los países más afectados son África, Asia, América y Este europeo.

(305) Hoy ya son miles de personas inmigrantes las que están trabajando en condiciones de explotación extrema en determinados sectores: pesca, construcción, sector agrario, hostelería, comercio, servicio domestico, prostitución y demás sectores de economía informal. En muchos casos, según la aplicación de la Ley de extranjería, sin documentación para poder residir y trabajar. Lo que les hace, si cabe, más vulnerables a cualquier medida de explotación, agresiones y demás vulneración de los derechos que nos asisten al resto de la población. LAB tiene que asumir no sólo defender sus intereses cotidianos en los centros de trabajo, sino que también tiene que ser instrumento de integración en todos los ámbitos y hacerles partícipes del pulso nacional y de clase que vivimos en Euskal Herria.

(306) La evolución de la inmigración en Euskal Herria es una variable muy importante en el diseño estratégico de nuestro país. No es un fenómeno coyuntural, Tenemos que tener la habilidad de abrir un proceso, unos puentes de intercambio, donde a esas personas se les proporcione la debida información de a qué país llegan y cuáles son nuestros problemas y objetivos, y, a su vez, conocer y analizar de que países llegan, para poder tener una fluida solidaridad, y una elaboración conjunta a nivel estratégico. Es decir, facilitar una integración que les y nos enriquezca.

(307) Este es un reto de gran alcance. Hace más de 30 años, la izquierda abertzale abordó una teorización y propuesta que rompía con los compartimentos estancos políticos sociales que produjo la inmigración en la época de la industrialización en pleno franquismo. La formulación de pueblo trabajador vasco, nos dio pistas teóricas que, por diferentes razones, no aplicamos con la dimensión que merecía en nuestra practica política. Hoy, nos encontramos con ese y otros elementos además de con la memoria histórica y estamos en mejores condiciones de implementar políticas más creativas y participativas con el nuevo flujo migratorio.

(308) Las líneas de intervención de LAB en torno a esta cuestión deben girar fundamentalmente en tres ejes:

- *Denuncia internacionalista de las situaciones económicas, sociales, estratégicas, culturales por las cuales estas personas se ven obligadas a abandonar sus países de origen, así como participar en iniciativas tanto locales como internacionales en apoyo de la soberanía y desarrollo de los pueblos.*
- *Denunciar las leyes de extranjería que desde Madrid y París nos imponen. Trabajar e incidir en la necesidad de un marco jurídico que, como en muchísimos otros aspectos, nos permita gestionar los flujos migratorios en función de nuestro tejido productivo y social y siempre desde claves de solidaridad e internacionalismo.*
- *Impulsar una acción sindical que dé participación a las personas inmigrantes y a su problemática especifica con independencia de su situación "administrativa"."*

304-308. paragrafoak. 50-51 orrialdeak.

Prposamena

Hurrengo paragrafoak proposatzen dira:

"(304) Historian zehar milaka lagunek bizirik irauteko erabili behar izan duten mekanismoa izan da immigrazioa. Beraz, ez da

kontu berria, ez Euskal Herrian, ezta munduko gainontzeko herrietan ere. Gaur egun, adin guztietako hainbat eta hainbat emakumek eta gizonek alde egin behar izaten dute, ekonomia, heziketa edo jendarte hobeagoren bila, hau da, bizimodu hobeagoren bila. Honen errudunak dira hegoaldeko herrien ondareak harrapatzen eta lapurtzen dituzten politika neoliberal globalizatzaileak eta herri hauek itotzen eta menperatzen dituzten Munduko Bankua, Merkataritzaren Munduko Erakundea edo Nazioarteko Moneta Funtsa. Inperialismoaren garapen ekonomiko, sozial eta kuturalaren ondorio genozida da. Herririk kaltetuenak Afrika, Asia, Amerika eta Eurpako Ekialdea dira.

(305) Gaur egun milaka etorkin ari dira lanean, esplotaziorik gordinenean, sektore zehatz batzuetan: arrantzan, eraikuntzan, nekazaritzan, ostalaritzan, merkataritzan, neskame moduan, prostituzioan eta arauturik ez dauden beste hainbeste sektore ekonomikotan. Kaso askotan, atzerritar legearen ondorioz, bizi eta lan egin ahal izateko dokumentaziorik ere ez daukate. hau dela eta, askoz errazagoa da pertsona hauek esplotatzea, erasotzea eta euren eskubideak zapaltzea. LAB, egunez egun pertsona hauen interesak lantokietan defendatzeaz gain, eremu guztietan integratzeko tresna izan behar da eta Euskal Herrian bizi dugun nazio eta klase gatazkaren partaide egin behar ditu.

(306) Euskal Herrian immigrazioa zelan doan garatuz aztertzea oso garrantzitsua da gure herriaren diseinu estrategikoari begira. Ez da momentu zehatz bateko fenomenoa. Trukaketarako prozesu eta bideak zabaldu behar ditugu, zein herritara heldu diren eta berton zelako arazo eta helburu dauzkagun informatu ahal izateko eta, era berean, zein herritatik datozen ezagutzeko eta aztertzeko. Honela, elkartasuna erraz eta naturala izango da eta gure estrategia elkarrekin osatuko dugu. Hau da, elkar aberastuko gaituen integrazioaren alde egin behar dugu.

(307) Erronka hau garrantzi handikoa da. Duela 30 urte baino gehiago, frankismo erdian industrializazioak bultzatu zuen immigrazio sasoian, ezker abertzalearen teorizazio eta proposamenek sortu ziren konpartimentu-estanko politiko sozialak apurtu zituen. Euskal langileriaren formulazioak pista teorikoak eman zizkigun, nahiz eta, zenbait arrazoigatik, praktika politikora merezi zuen neurrian aplikatu ez genuen. Gaur, elementu hori eta beste batzuk ere badauzkagu, memoria historikoaz gain, eta immigrazioaren inguruko politika sortzaileagoak eta parte hartzean oinarrituak gauzatzeko egoera hobea daukagu oraingoa.

(308) Gai honen inguruko LABen ildoak hiru ardatzetan jorratu behar dira:

- *Pertsona hauek euren herrietatik alde egiter behartzen dituzten egoera ekonomiko, sozial, estrategiko eta kulturalen salaketa internazionalista. honekin batera, herrien subiranotasuna eta garapenaren alde bertoko eta nazioarteko ekimenetan hartu behar dugu parte.*
- *Madrilen eta Parisen inposatzen dizkiguten atzerritar legeak salatuko ditugu. lege esparru propioaren alde egin behar dugu; honek, beste gai asko bezala, immigrazioa ere kudeatzen utziko digu, gure ehundura produktibo eta sozialaren arabera eta beti elkartasun et internazionalismoari begira.*
- *Gure ekintza sindikalak etorkinei parte hartzen lagundu behar die eta euren arazo bereziez arduratu beharko da, zein egoera "administratibotan" dauden axola barik."*

Emendagilea: Mertxe Gómez llanos

108. emendakina

305. paragrafoa. 51 orrialdea.

Proposamena

305. paragrafoaren hasieran hurrengo hau gehitzea proposatzen da:

"*(305) Herrialde garatuetatik at datorkigun immigrazioak eta honek* Euskal Herrian duen bilakaera LABek eta ezker

abertzale osoak sakon inoiz baloratu ez duen aldagaia da."

Zergatia

307. paragrafoan dagoeneko azterketa egin izan dela onartzen bada ere, herrialde garatuetatik etorritako immigrazioaz baino ez da egin. 306. paragrafoak aipatzen dituen lan baldintzak ez dira, hain zuzen ere, herrialde garatuetako etorkinen egoeraz ari eta, bereizketa esplizitu hori ez agertzekotan, etorkintzat Espainiar eta Frantziar estatuetatik kanpo etortzen den langilea besterik ez dugula hartzen ematen du. Ondorioz, espainiarrak etorkinak ez badira, gu...

Párrafo 305. Página 51.

Propuesta

Añadir lo siguiente al comienzo del párrafo 305:

"*(305) La inmigración proviniente de pueblos no desarrollados y la evolución de la misma* en Euskal Herria es una variable que no termina por valorarse en profundidad por parte de LAB y el conjunto de la izquierda abertzale"

Motivos

Aunque se acepta en el párrafo 307 que ya se ha hecho un análisis, tan sólo se ha hecho en lo referente a la inmigración procedente de pueblos desarrollados. Las condiciones laborales que se nombran en el párrafo 306 no hacen referencia exactamente a la situación de las personas inmigrantes venidas de países desarrollados, y si no apareciese esa diferenciación explícita, parecería que tan sólo tomamos en cuenta a las personas venidas de fuera de los estados español y francés. En consecuencia, si españolas y españoles no son inmigrantes, nosotras y nosotros...

Emendagilea: Andoni Basabe, Jon Otegi eta Segis González

109. emendakina

Párrafo 316. Página 53.

Propuesta

Añadir a "modelo social alternativo" *"el socialista"*

316. paragrafoa. 53. orrialdea.

Proposamena

"jendarte eredu alternatiborako proposamenak" esapideari hurrengo hau gehitu: "jendarte eredu alternatiborako, *hau da, eredu sozialistarako* proposamenak"

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

110. emendakina

Párrafo 317. Página 53.

Propuesta

Sustitución de "un modelo social alternativo al capitalismo neoliberal" por *"el modelo social alternativo al capitalismo, por el socialismo"*

Motivos

Sólo hay "un" modelo, "el" modelo socialista y, por otra parte, es el alternativo, no sólo al neoliberalismo, sino a cualquier forma de presentación del capitalismo.

317. paragrafoa. 53. orrialdea.

Proposamena

"kapitalismo neoliberalaren alternatiba izan dadin jendarte ereduaren aldeko borrokarekin uztartuta dago" esaldiaren ordez, hurrengo hau ipini: *"kapitalismoaren alternatiba den jendarte ereduaren aldeko, hau da, sozialismoaren aldeko borrokarekin uztartuta dago"*

Zergatia

Eredu bakarra dago, eredu sozialista eta, beste alde batetik, hauxe da alternatiba, neoliberalismoarena ez ezik, kapitalismo edozein modurena ere bai.

Emendagilea: Joseba Mirena Arenzana Villar

111. emendakina

Párrafos 326, 328 y 329. Página 54.

Propuesta

Sustituir por la siguiente redacción:

"(326) El sindicato debe basar su funcionamiento en las secciones sindicales de afiliadas y afiliados y en las asambleas sectoriales y territoriales y orientar su actividad al conjunto de las y los trabajadores."

"(328) Las personas delegadas y todas las responsables basarán su actividad y decisiones en la más amplia información, consulta, debate y participación de las estructuras de base mencionadas. Deberán, asimismo, proponer metas, planes y programas de trabajo pautados temporalmente, acordes con las decisiones congresuales y que serán aprobados y evaluados en los órganos de dirección correspondientes y en las estructuras de base hacia las que vayan dirigidos."

"(329) Es preciso habilitar procedimientos y recursos de resolución de conflictos ágiles, respetados por el conjunto de la organización e integrados por personas independientes de la dirección y de las partes en su actuación. La comisión de conflictos jugará dicho papel."

Motivos

El sindicato debe ser consciente del riesgo de burocratización que corren todas las organizaciones, también la nuestra. Es preciso estar alerta y debatir políticamente el problema. La burocracia se define como un colectivo con inte-

reses propios y ajenos a los de los trabajadores y trabajadoras. Su hacer político se relaciona en exclusiva con el mantenimiento o mejora de su estatus de poder, su situación laboral, la mejora de sus condiciones de vida desde la parasitación de las luchas de las y los trabajadores. Nace de la desmovilización y se alimenta de la falta de participación y control sobre ella. Para ello fuerza la falta de democracia interna en las organizaciones.

La única vacuna contra la burocratización es el aumentar los mecanismos de control sobre los y las responsables del sindicato en todos sus niveles, es preciso fomentar el trabajo en equipo, habilitar permanentemente espacios de participación, debatir y hacer seguimiento colectivo de los planes y programas aprobados, evaluar las tareas realizadas. La dirección debe considerar y enmendar los errores en el funcionamiento.

Otro problema que aparece en todo tipo de organización y de la que el sindicato no se ve libre son los conflictos interpersonales que, si no son resueltos, pueden degenerar en prácticas de acoso o enfrentamiento sin retorno y, lo que es peor, en pérdida de valiosos cuadros a favor de los más resistentes, que no de los y las mejores sindicalistas.

326., 328, eta 329. paragrafoak. 54. orrialdea.

Proposamena
Hurrengo paragrafoak proposatzen dira:

"(326) Sindikatuak afiliatuen sail sindikaletan eta sektore eta lurralde asanbladetan oinarritu behar du bere funtzionamendua, eta bere jarduera langile guztiei bideratuta egon beharko da."

"(328) Aipatutako oinarrizko egitura hauen informazio, kontsulta, eztabaida eta parte hartze ahalik eta zabalenean oinarrituko dituzte euren jarduera era erabakiak delegatuek eta arduradun guztiek. Era berean, aldizka-aldizka hainbat pauta bete beharko dituzten helburuak, plangintzak eta programak proposatu beharko dituzte, Biltzarrean hartutako erabakiekin bat etorriko direnak eta dagozkien zuzendaritza organoek eta oinarrizko egiturek onartu eta ebaluatu beharko dituztenak."

"(329) Gatazkak konpontzeko prozedura eta baliabide arinak gauzatu behar dira. Hauek erakunde osoak errespetatu beharko ditu eta zuzendaritzakoak edo gatazkaren partekoak ez diren pertsonek osatuko dituzte. Gatazka batzordea arduratuko da honetaz."

Zergatia
Sindikatua kontziente izan behar da erakunde guztiek -gurea barne- burokratizatzeko arriskua daukatela. Beharrezkoa da adi egotea eta arazoa eztabaidatzea. Burokrazia interes propioak, langileenak ez diren interesak, defendatzen dituen kolektiboa da. Bere zeregin politikoaren helburu bakarrak dira daukaten botereari, lan egoerari, bizi baldintzei eustea edo hobetzea, langileon borroken bizkarretik. Mobilizazio faltatik sortzen da eta parte hartze eta kontrolik ezaz elikatzen da. Horretarako, erakunde barruko demokrazia zapuztu egiten du.

Burukratizazioaren aurkako txerto bakarra sindikatuko arduradunak kontrolatzeko mekanismoak gehitzea da, maila guztietan. Beharrezkoa da talde lana bultzatzea, parte hartzeko guneak osatzea, eztabaidatzea eta onartutako plangintza eta programak taldean kontrolatzea, burututako lanak ebaluatzea. Zuzendaritzak funtzionamenduan suertatzen diren okerrak kontuan hartu eta konpondu beharko ditu.

Edozein erakundetan bezala, sindikatuan ere sortzen dira hika-mikak kideen artean. Hauek konpontzen ez badira, liskarrak edo jazarpen kasuak ekar ditzakete, eta, are txarragoa dena, balio handiko koadroak gal ditzakegu, beste batzuen erruz, eta honek ez du esan nahi geldituko liratekeenak sindikalistarik onenak direnik.

112. emendakina

326-334 paragrafo berriak. 54. orrialdea

Proposamena

"Gure eredu sindikala bultzatzen", 5. kapituluaren amaieran atal berria sartzea. hau 5.4.10. puntua izango litzateke eta "Ekintza sindikala eta euskararen normalizazioa" izenburua edukiko luke:

"5.4.10. Ekintza sindikala eta euskararen normalizazioa

(326-berria) Askapen nazional eta sozialerako prozesuan mugimendu sindikala erabakigarria baldin bada, euskara, geure hizkuntza, ere egon behar da ekintza sindikalaren barne, hauxe baita Euskal Herriaren nortasunaren ezaugarri nagusienetako bat.

(327-berria) Pairatzen dugun neoliberalismoak sustatzen duen globalizazio ekonomikoaren bereizgarrietako bat akulturazioa dela ezin dugu ahaztu. Munduko herrien berezko ezaugarriak desagertarazi eta kultura "yankeea" nagusitzean datza, hain zuzen ere. testuinguru honexetan koka dezakegu hizkuntzen desagerpen prozesua. Beraz, globalizazio honi aurre egiteko guztiz beharrezkoa da herrien hizkuntzak defendatzea, mundu aurrerakoi, justu eta anti-inperialista eraikitzeko. Are gehiago, zapaldu eta minorizatua den gure hizkuntzaren kasuan.

(328-berria) Honen ondorioz, gure sindikatua lan munduan eragile garrantzitsua denez gero, defendatzen duen eraikuntza nazional eta sozialarekin bat etortzeko, beharrezkoa da ekintza sindikalean praktika koherentea eta hizkuntz normalizazioaren aldeko apustua egitea.

(329-berria) Azken urteotan ekimen eta aldarrikapen asko egin dira normalizazioaren eta hizkuntz eskubideen alde; euskararen aldeko mugimenduak eta herritarrek lan handia egin dute. Hala ere, argi dago lan munduko hizkuntz normalizaziorantz egin diren urratsak antzemanezinak direla, gaur egun enpresen eguneroko jardueran euskararen presentzia hutsaren hurrengoa delako.

(330-berria) Irakaskuntza ardatz estrategikoa da herrientzat. Beraz, eraikuntza nazional eta sozialaren prozesu honetan kontsekuentea da euskaldunduko duen hezkuntza sistemaren alde egitea. Are gehiago, hizkuntz normalizazio prozesu honetan guztiz beharrezkoa da bai eskolak bai unibertsitateak euskaraz ikastea bideratzea. Izan ere, lan mundura sartuko diren pertsonak prestatzen dituzten zentroek lan mundu horretan moldatzeko gaitasuna ere eman behar diete. Honek berebiziko garrantzia dauka lanbide heziketan eta unibertsitatean.

(331-berria) Lan munduan, eta oinarri juridiko-publikoa kontuan harturik, sindikatuak gure herrian dauden administrazio guztiei zera exijitu behar die, funtzionario berri guztiek euskara ezagutu eta euren lan-funtzioak betetzeko gaitasun teknikoa izan behar dutela. Era berean, herritarron hizkuntz eskubideak errespetatuak izan daitezen, administrazioak euskalduntze plan osoa martxan ipin dezan egingo dugu lan.

(332-berria) Enpresa pribatuari dagokionez, euskalduntze planak daukazkaten enpresetan sindikatuak zuzen parte hartzea bermatuko dugu, harik eta enpresa guztiz euskalduntzea lortu arte. Beste alde batetik, euskara ikasi nahi duten langileentzako laguntzak eskatuko ditugu eta, honekin batera, euskalduntze prozesu honetan emandako orduak ordain diezazkietela.

(333-berria) Lehen aipatutako esparru bietan, hau da, enpresa pribatuetan zein administrazioan, hizkuntz normalizaziorako burutu behar diren dinamikek negoziazio kolektiboetan daukate abiapuntu garrantzitsua, hauetan sindikatuek parte hartzen baitute eta langileen eskubideak lortzeko tresna baitira.

(334-berria) Aurretik adierazitako guztiak, hala ere, oinarri finkoa behar du: lehenengo eta behin sindikatu honek bere euskalduntze prozesua hasi eta amaitu behar du. Are gehiago, euskara ezagutzeak, logikoki, euskara egituretan, batzarretan, egoitzetan, sail sindikaletan eta abarretan erabiltzea ekarri behar du. Eta honekin guztiarekin batera, sindikatutik

kanpo ere islatu beharko da, euskararen erabilpenaren defendatzaile eta aitzindari bihurtuko baikara. Edozelan ere, sindikatuaren interbentzio publikoetarako irizpideak finkatu beharko ditugu, euskararen aldeko irizpideak, jakina."

Zergatiak

1. Sindikatu honek bere burua abertzaletzat baldin badauka, ezinbestekoa da hizkuntz normalizazioaren alde egitea.
2. Planteamendu hau aurrera eramateko lan munduko eragile sozialik garrantzitsuena sindikatua delako.
3. Gaur egun,hizkuntz normalizazioan benetako aurrerapausoak egiteak berebiziko inportantzia daukalako, euskara desagertzeko benetako arriskuan baitago.
4. 5. Biltzarrean bete ez diren erabakiak hartu zirelako.

Párrafos 326-334 (nuevos). Página 54

Se propone que en el capítulo 5, "Impulsando nuestro modelo sindical" se añada un nuevo subapartado como punto 5.4.10., con el siguiente título: "La acción sindical y la normalización del euskara":

"5.4.10. La acción sindical y la normalización del euskara"

(326-nuevo) Si en el proceso de liberación nacional y social el movimiento sindical es determinante, se hace necesario que se inserte como característica de nuestra acción sindical uno de los elementos identitarios más significativos de Euskal Herria, como es nuestra lengua, el euskara.

(327-nuevo) No debemos olvidar que la aculturización es una de las características de la globalización económica que fomenta el neoliberalismo que padecemos, concretamente, hacer desaparecer los elementos identitarios de los pueblos del mundo y hacer prevalecer la cultura "yankee". En este contexto podemos situar el proceso de desaparición de las lenguas. Por lo tanto, para hacer frente a esta globalización es totalmente necesario la defensa de las lenguas de los pueblos para un mundo progresista, justo y anti-imperialista. Más si cabe, en el caso de una lengua oprimida y minorizada como la nuestra.

(328-nuevo) En consecuencia, siendo nuestro sindicato un importante agente en el mundo del trabajo, en sintonía con la construcción nacional y social que preconiza, es necesario implementar en la acción sindical una práctica coherente y apuesta por la normalización lingüística.

(329-nuevo) Se observa que en los último años han sido muchas las iniciativas, muchas las reivindicaciones a favor de la normalización y en defensa de los derechos lingüísticos, gran trabajo el realizado por el movimiento a favor del euskara y la ciudadanía. Sin embargo, es evidente que los pasos que se han dado hacia la normalización lingüística en el mundo laboral son inapreciables, pues hoy por hoy la presencia del euskara en el devenir cotidiano de las empresas es testimonial.

(330-nuevo) La enseñanza es un pilar estratégico en un pueblo. Es consecuente, por lo tanto, en este proceso de construcción nacional y social apostar por un sistema educativo que euskaldunice. A mayor abundamiento, en este proceso de normalización lingüística es totalmente necesario que, tanto en la escuela como en la universidad, se posibilite el aprendizaje en euskara, pues son los centros de preparación de las futuras personas que se integrarán con posterioridad en el mundo laboral los que deben posibilitar que tengan capacidad de desenvolverse en el mismo. Especial relevancia tiene en el ámbito de la formación profesional y universitario.

(331-nuevo) En el ámbito laboral, y teniendo en cuenta la base jurídico-pública, el sindicato debe exigir a todas las administraciones que existen en nuestra tierra la necesariedad del conocimiento y capacidad técnica para el desarrollo de sus funciones laborales de todos aquellos nuevos funcionarios y funcionarias. Asimismo, por la vía de posibilitar el respeto de los derechos lingüísticos de la ciudadanía, trabajaremos a favor de que la administración ponga en marcha un plan de euskaldunización global.

(332-nuevo) En lo que respecta a la empresa privada, garantizaremos nuestra participación directa en aquellas empre-

sas que tengan planes de euskaldunización, hasta que consigan el objetivo de la plena euskaldunización. por otra parte, exigiremos ayudas para aquellos trabajadores y trabajadoras que quieran aprender euskara y que las horas invertidas en ese proceso de euskaldunización sean retribuidas.

(333-nuevo) En los dos ámbitos citados anteriormente, es decir, tanto en la empresa privada como en la administración, las dinámicas a realizar para la normalización lingüística tienen una base de partida importante en las negociaciones colectivas en que toman parte los sindicatos y que son instrumentos para conseguir derechos de las trabajadoras y trabajadores.

(334-nuevo) Todo lo anteriormente expuesto, no obstante, necesita de una sólida base, del proceso de euskaldunización que debe emprender y finalizar este sindicato en primer lugar. Es más, el conocimiento del euskara debe conllevar, lógicamente, el uso del mismo en nuestras estructuras, reuniones, sedes, secciones sindicales, etc. Y todo ello trae consigo que ello deba tener un reflejo de puertas para afuera, lo que nos convertirá en una orgaización defensora y pionera en el uso del mismo. De todas formas, habrá que marcarse unos criterios de uso en las interfenciones públicas del sindicato, criterios de discriminación positiva a favor del euskara, por supuesto."

Motivos

1°- Porque, si este sindicato se considera abertzale, es impepinable que tiene que trabajar en defensa de la normalización lingüística.
2°- El sindicato es el agente social inmerso en el mundo laboral más importante para llevar adelante este planteamiento.
3°- Porque hoy en día es de vital importancia dar pasos reales en la normalización lingüística, porque se encuentra en una situación de riesgo real de desparición.
4°- Porque en el 5° Congreso se adoptaron unas decisiones que no se han cumplido.

Emendagilea: Arrasateko herri biltzarra

113. emendakina

Párrafo 329. Página 54.

Propuesta

Añadir al final del párrafo: *"El enfoque de la defensa jurídica debe superar la línea legalista y adoptar un planteamiento más sociopolítico, primando la eficacia sindical más que las cuestiones individuales concretas. Las limitaciones de personal, espacio o tiempo no deben ser criterio de selección"*. Quedaría así:

"(329) La asesoría jurídica del sindicato tiene que mantener ese mismo esquema de ordenación de trabajo, planteando los días de consulta y posibilitando una dedicación eficaz. *El enfoque de la defensa jurídica debe superar la línea legalista y adoptar un planteamiento más sociopolítico, primando la eficacia sindical más que las cuestiones individuales concretas. Las limitaciones de personal, espacio o tiempo no deben ser criterio de selección"*

329. paragrafoa. 54. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoaren amaieran hurrengo hau erantsi: *"Defentsa juridikoaren ikuspegiak ildo legalista gainditu behar du eta bere*

planteamendua soziopolitikoagoa izan beharko da. Hortaz, sindikatuaren eragingarritasunari lehentasuna eman behar dio, norbanakoaren arazo zehatzei baino. Pertsonal, leku edo denbora mugak ez dira hautatzeko irizpiderik izan behar".

"(329) Sindikatuko lege aholkularitzak lanaren antolamenduaren eskema horixe bera izan behar du, kontsulta egunak jarriz eta dedikazio eragingarria ahalbidetuz. ***Defentsa juridikoaren ikuspegiak ildo legalista gainditu behar du eta bere planteamendua soziopolitikoagoa izan beharko da. Hortaz, sindikatuaren eragingarritasunari lehentasuna eman behar dio, norbanakoaren arazo zehatzei baino. Pertsonal, leku edo denbora mugak ez dira hautatzeko irizpiderik izan behar"***

Emendagilea: Goio Ubierna Güemes

114. emendakina

Párrafo 331. Página 55.

Propuesta

Añadir al párrafo lo siguiente:

"Este plan de formación permanente tendrá como uno de sus pilares más importantes la propia auto-organización de la afiliación en grupos de debate y escucha mutua permanente sobre la recuperación y reorganización de la lucha de clases en Euskal Herria. Dicha auto-organización, a partir de las herri biltzarrak, será facilitada y apoyada por las estructuras del sindicato y sus reflexiones serán recogidas y tenidas en cuenta en los ámbitos a los que se refieran".

Motivos

Esta propuesta quiere salir al paso de las críticas recogidas en el apartado 4º sobre el desgaste de nuestra acción sindical: *"desideologización"*(211), *"vacío de reflexión e intervención"* (212), caer en *"un sindicato de demanda y no de oferta"* (214), *"disociación entre un discurso teórico [...] y una práctica donde van ganando espacio tendencias en clave de resignación y una cierta falta de crítica"* (208) y, sobre todo, porque en el punto 209 se explicita que *"El Congreso tiene que promover una reflexión sobre modelo sindical y organizativo"* y que *"este Congreso tiene que ser un punto de inflexión en la renovación del modelo sindical y organizativo"* (221)

Entiendo que la forma clásica de dinamizar: de arriba a abajo, es decir, desde los cuadros y responsables hacia la afiliación de base, provoca y alienta (de un modo no deseado, por supuesto) la pasividad, el delegacionismo y *"una mayor jerarquización y funcionamiento vertical en el sindicato"* (219).

El añadido propuesto implica, dentro de su aparente simplicidad, una tarea muy enérgica y constante, pues se trata de cambiar un chip mental muy interiorizado en la clase trabajadora: el chip que a veces nos sale en frases como "otros saben más que yo", "yo haré lo que me digan", "lo que yo pienso no vale gran cosa", etc.

A mi modo de ver, no hay otro modo de deshacernos de esa basura mental que arrastramos (de descrédito de la gente de base acerca de su propio poder-capacidad de reflexión y aportación), que juntarnos asiduamente en grupos reducidos en los que tengamos un mismo tema de interés común que nos afecte, y del que tengamos ganas de hablar. De ahí van a salir, si se hace en un ambiente de confianza y respeto, las constantes y necesarias aportaciones que llenen de contenido las teorizaciones de nuestros "burus" sindicales (por cierto que estaría bien que se integrasen, como un o una militante más, en uno de esos grupos).

En una palabra, es necesario que los trabajadores y trabajadoras tengamos espacios de confianza donde podamos hablar de nuestras vidas, proyectar el mundo sin clases sociales que queremos y armarnos de la necesaria autoestima –orgullo- de pertenecer a la clase trabajadora. En definitiva, un sitio donde recuperar nuestra real naturaleza

humana desarrollando nuestra amistad, complicidad y solidaridad. Crear muchas agrupaciones de personas de clase obrera (en grupos para debatir temas de interés, grupos para pensar y desahogarse, grupos para escucharse con respeto...) para recuperar nuestra tradición de dignidad y lucha por nosotros y nosotras, por nuestra familias, por nuestro pueblo; para informarnos sobre los éxitos y fracasos de las compañeras y compañeros; para saber y aprender de las y los líderes que han marcado camino por sus intuiciones, honestidad y coraje; para debatir proyectos, propuestas y acciones para el cambio de nuestra situación laboral hacia horizontes de racionalidad, humanidad y solidaridad.

Mantenernos unidos y unidas, es la clave para pensar con claridad. Vernos las caras, saber de nuestras luchas, compartirlas y extenderlas, aprender de nuestras experiencias, proyectar y organizar nuevas formas de pelear... Estos, y otros muchos, pueden ser los frutos de juntarnos habitualmente en estos grupos en los que reflexionemos sobre los temas que nos interesan.

A esta tarea tendría que dedicar tiempo, atención y seguimiento un grupo de gente convencida de su necesidad , con el objetivo de que los grupos surjan y sean ilusionantes y operativos en un plazo relativamente corto.

331. paragrafoa. 55. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoari hurrengo hau gehitu:

"Etengabeko prestakuntza plan honen oinarri garrantzitsuenetako bat afiliatuak eztabaidatzeko eta elkarri entzuteko taldeetan antolatzea izango da. Talde hauetan Euskal Herrian klase-borroka berreskuratzeaz eta berrantolatzeaz arituko gara. Afiliatuen antolaketa modu hau herri biltzarretan oinarrituko da, sindikatuko egiturek erraztu eta bultzatuko dute, eta bertan egingo diren hausnarketak dagokien esparruetan batu eta kontuan hartuko dira"

Zergatia

4. atalean gure ekintza sindikalaren higaduraren inguruan egiten diren kritikak direla eta egin dut proposamen hau: *"ideologia galera"* (211), *"gogoeta eta esku hartzean hutsunea"* (212), *"eskaerako sindikalismoan funtzionatu [...] eta ez eskaintzako sindikalismoan"* (214), *"eredu sindikalaren gaineko berbaldi teorikoen eta etsipen eta nolabaiteko kritikarik ezeko klabeetako joerak tokia irabaziz doazeneko praktikaren arteko banaketa"* (208) eta, batez ere, 209. paragrafoan *"Biltzar honek sindikatuaren eta antolamenduaren ereduaren gaineko gogoeta bultzatu behar duela"* eta 221.ean *"biltzar honek inflexio puntua izan behar duela LABen sindikatu eta erakunde ereduaren berriztapenen"* argi uzten delako.

Proposatutako gehigarri honek, sinplea ematen badu ere, etengabeko zeregin bizi-bizia dakar berarekin batera. Izan ere, langileriak oso barneratuta daukan ideia aldatzera dator: *"besteek nik baino gehiago dakite"*, *"esaten didatena egingo dut"*, *"nire usteek ez dute askorako balio"* bezalako esaldietan batzuetan ezkutatzen den ideia.

Nire ustez, oinarriko kideek beren hausnarketa eta ekarpen gaitasunaz duten zalantzaz, hau da, buruan darabilgun zabor horretaz libratzeko modu bakarra talde txikietan batzea da eta bertan denon interesekoa den gai baten inguruan hitz egitea. Hortxe sortuko dira, konfiantza eta begirunez egiten bada, sindikatuko buruen teorizazioak edukiz beteko dituzten ekarpen beharrezkoak (gainera, ondo legoke eurak ere talde banatan sartzea, beste militanteen antzera).

Laburbiltzeko, langileok konfiantzaz hitz egin ahal izateko esparruak izan behar ditugu, gure bizitzen inguruan hitz egiteko, klase sozialik gabeko nahi dugun mundua proiektatzeko eta langileriaren parte izateko harrotasuna lortzeko. Azken batez, gure benetako gizatasuna berreskuratzeko lekua, adiskidetasuna, konplizitatea eta elkartasuna garaturik. Langile talde asko sortzea (intereseko gaiak eztabaidatzeko taldeak, pentsatzeko eta barrena husteko taldeak, elkarri begirunez entzuteko taldeak...) geure aldeko, gure familien eta gure herriaren aldeko borroka eta duintasun tradizioa berreskuratzeko; beste kideen arrakasta eta porroten inguruan informatzeko; euren intuizioei, zintzotasunari eta ausardiari esker bidea egin duten liderrei buruz jakiteko eta ikasteko; gure lan egoera aldatuko duten proiektuak, proposamenak eta ekintzak eztabaidatzeko, arrazionaltasun, gizatasun ta elkartasun etorkizunerantz.

Elkarturik egotea argitasunez pentsatu ahal izateko gakoa da. Elkar ikustea, geure borroken berri izan, konpartitu eta zabaldu, gure eskarmentuez ikasi, borrokatzeko modu berriak antolatu... Hauek, eta beste asko, izan daitezke talde hauetan intereseko gaiak eztabaidatzeko elkartzearen emaitzak.

Zeregin hau premiazkoa dela konbentziturik dagoen jendeak denbora, arreta eta jarraipena eskaini beharko luke, taldeak sor daitezen eta epe laburrean ilusioa piztu eta operatiboak izan daitezen.

Emendagilea: Mikel Pikaza Zabala

115. emendakina

Párrafo 334. Página 55.

Propuesta

Añadir lo siguiente al párrafo

"La patronal mantiene permanentemente *muchas veces en función de sus intereses pactistas acompañada e introducida en los centros de trabajo por CCOO y UGT incluso con amenazas de cierre, haciendo de guardianes de las decisiones empresariales, con lo cual se dificulta a los sindicatos de clase defender los derechos de la clase trabajadora con mayor claridad y situar a la patronal como nuestra antagónica, algo que deberemos superar sin ningún tipo de* complejo coactivo en las relaciones laborales."

334. paragrafoa. 55. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoaren hasiera honela moldatu:

"Askotan, bere interes paktisten mesedetan, CCOOeta UGTk patronala sartzen dute lantokietan, baita enpresa ixteko mehatxuekin ere, eta bi sindikatu hauek enpresaburuen erabakiak zaintzen dituzte. Honek klase sindikatuei langileen eskubideak argiago defendatzea eta patronala gure kontrakotzat agertzea galarazten digu,eta hau lan harremanetan inolako bortxa modurik onartu gabe gainditu beharko dugu".

Emendagilea: Ricardo Fuentes. Vicrilako sail sindikala.

116. emendakina

Párrafo 337. Página 55.

Propuesta

Agregar en el párrafo 337:

"Al margen de este compromiso y con carácter transitorio, a las afiliadas y afiliados que por su actividad de lucha sindical se vean implicados en huelgas de 10 ó más días de duración (hasta 30), se les exonerará de cuota de las dos mensualidades posteriores a la fecha de la huelga realizada. En los casos de huelgas superiores a 30 días, la exoneración será de 6 meses, sin perder en ninguno de los casos los derechos que como personas afiliadas les corresponden."

337. paragrafoa. 55 orrialdea.

Proposamena

Gehitu ondoko hau 337. parrafoari:

"Konpromiso honi ekin arte, borroka sindikala dela eta, grebara doazen afiliatuei kuotak ordaintzetik libratuko zaie. Grebak 10 egun edo gehiago iraunez gero (30 egunera arte), ez dituzte hurrengo bi hilabeteetako kuotak ordaindu beharko; 30 egun baino gehiagoko greben kasuan, sei hilabetez egongo dira libraturik, eta ez dituzte, hargatik, afiliatu moduan dauzkaten eskubideak galduko."

Emendagilea: Xabier Martin

---

117. emendakina

Párrafo 337. Página 55.

Propuesta

Modificar el párrafo 337 de la siguiente manera:

